

Aita Santua gure elizetan

Gaur egun, gure Aita Santua zokoratzen ari gera toki askotan. ekintza ta eredu naiko gogorra eman digute lengo egunean. Urriaren amaseian esanai aundiko urte muga ospatzen zen Eliz Katoliko aundi zabalean: ogei urte gure Aita Santua, Elizaren lendakari ta buru aukeratu zutela. Ori anitz da. Orduan aukeratu zuten gotzai guzien artean buru aintzinlari bezala. egiz Espiritu Santuak aukeratu zuen izateko Elizaren lendakari, Kristoren ordezkioa bere artaldean. Gertakizun orren edertasunari begira gaudela, bi esanai aundiko gertakizunaren aurrean begira gaude eta auxa ikusten dugu. Buru ori, buru bezela lendabizi, eta gero buru orren ikaragarritzko emaitza ogei urte oietan.

Aurtengo egun ortan Eliz aundiak ludi zabalean ospatzen zuen Juan Paulo'ren ogei urteak, eta gañera eliz ortan ospatzen zuten eliz berriaren aldarearen berritzea. Aldare berri ori bedeinkatzen ari ziren meza eder batekin. Aldare erdian gotzai zegoen ogei apaizekin, eta eliza kristauz bete lertzen. Ezkongai zeuden bi mutil gazte aiek oartu ziren Gotzaiak ez zula aipatu ere Aita Santua'ren izena.

Aita Santua ospatu gabe, aipatu gabe bere urte muga berexi ura amaitu zuten meza: gertakizun aundi ura parrokia arentzat, au da aldare berritzea, gotzaiak ogeiren apaizen batekin ospatu zuen, eta egun berean Aita Santuaren ogei urteak aztu zituzten. Egia benetan: kristau lekuko gizarte gizon aunitzek esana. Batzarre artako gizaseme asko mintzatu ziren orretan orretaz zuri zuri. An izan ziren itzal dietan utsune aundi aietaz nabar-

mendu ziren; nola Aita Santuaren ogei-urte aiek utsean, aipatu gabe joan ziren. Negargarria, tamalgarria, berri-txarra benetan. Egun artan bertan Euskalerriko elkarte aundi batek erromes ederra zeukaten Aralar'ko San Migel'en eta bizpauru aldiz, an goien aipatu zuten Aita Santuaren urte muga berexi ura. Orrekin erraten ziguten zer esan nai aundia zeukala. Beste aldetik bertze meza berexi orretan, aldareak bedeinkatzen zituzten egun orretan izan zen utsune aundi bat aunitzentzat zalla ulertzen: ez aipatu, ez ospatu, ez itzik egin. Ori apez aien tartean gotzai zegoela, baita ere eziztallen lendakaria ere. Bertze aldetik, «Le Monde» frantses egunkarian egun orretan bertan, bi orrialde terdi eman zioten garrantzi aundiko gertakizun orrerri: bi orrialde terdi. Ori dena protestanteen kutsuko egunkari batean...

Orain uler bearko genuke zergatik aibertze ta aibertze kristauak zeuden galdezka bein eta berriz zergatik gotzaiaren meza arretan Aita Santuaren izenari orrelako utsunean egin zioten. Oraindian galdezka dabiliz. Protestanten egunkari orretan, Juan Paulo'ri buruz gauza eder asko erraten ziren: Aita Santua mixiolarien eredu, gizon gaztien aintziazalari, pakearen langillea, askatasunaren iturria eta abar eta abar. Eta bertze Eliz katoliko arretan, itzik ez. Ez al ditugu petralak deitu bear. Ezin diteke izan gure artean elizik, gure buru ta arduraduna aztu ta zokoratu naian. Noiz izango ote gera egitazko kristauak, eta Aita Santuaren seme ziñezkoak? Edo egitazko gizonak?

Latxaga

Baztango txistulariak

Berroetako txistularia ginuen Ziria-ko Antxorena, bere gazte denboran herriko txistularia. Gero Arjentinara joan zen eta han bizi da.

Tiburcio Almenar Iruriteko txistularia aunitz urtez, lan haundia egin zuen.

Gero dugu txistulari elizondarra, Manuel Biguria, Maurizioren ikasle eta aunitz aldiz Lantzeko Inauterietan ibilia bere maixu Maurizorekin eta Felix Iriarte atabalariarekin.

Baditugu bertze bi gazte baztandar. Txistulari onak eta mutil-dantza guziak dakizkitenak:

Patxi Larralde arizkundarra. Jabier Larralderen semea eta bere aitaren erakaspenak ongi ikasiak, soñu eta dantzetan, zaletasun haundikoa Baztango folklorea arduratzen dena.

Bertze dugu Agustín Eraso elizondarra Maurizioren ikaslea eta lehenbiziko mailako txistularia, Txapelketa batean saritua.

Badugu Elizondan txistulari talde bat bi urte hoketan Baztango herrietan zenbait kontzertu emanak, arrakasta haundia erdietsirik. Agustín Eraso dugu taldearen gidari eta taldea osatzen dutenak: Jesus Baylon, Juanjo Iturzaeta eta Fernando Leitza, denak elizondarrak eta Asier biela Amaiurkoa. Gaur egun Baztanen baditugu bi dantzari talde, gure lurraldeko dantzari Euskalerrin gaindi erakusten dituztenak.

Bat Arizkongo «Elkartasuna» Taldea. Txistulari eta Gidari, Jabier Larralde eta atabalari Felix Iriarte. Erran dezagun ere Jabier Larralde eta bere seme Patxi zer lan aipagarria egin duten. Baztango mutil-dantzak eta gañerako dantzen bilduma osatu dute eta atzenburik zauden dantza batzuk ere berpizturik. «Baztango folklorea» izenburuarekin argitaratu dute beren lan aipagarria.

Bertze taldea dugu, «Baztango Dantzari Taldea» eta txistularia Agustín Eraso dugu eta Fernando



Leitza atabalari.

Baztango «Txistularien Kondaira» agertu dugu denen izenak aipatuz eta gure lurraldean izan ditugun zenbait gertakizun.

Orain gure lurraldean izan ditugun atabalari ospetsuenak aipa ditzagun: Inazio Santxotena, Arizkun. Xidro Jaurena, Arizkun. Manuel Jaurena, Arizkun. Tomas Jaurena, Arizkun. Justo Jaurena, Arizkun. Jose Maria Menta, Arizkun. Felix Iriarte, Arizkun. Martzepe, Elizondo. Pako Amorena, Elizondo. Florentino Olaetxea, Irurita. Martin Jose Zaldua, Elizondo.

Baztango dantzak eta txistularien kondaira agertu ditugu, ehun urte hauetan izan ditugunak. Behar bada baten bat utzi izanen ditugu hain segur eta horrela egin badugu, barkatu.

Baztango folklorea aberatsa da eta dantzak irauten dute.

Mutil-Dantza bere 19 dantza desberdinetan banaturik, denak bere izen berexiekin eta soñue eta dantzatzeko gisa ere desberdinak. Gure dantzak mendez mendez irauten dute. Duela 100 urte dantzatzaren zirenak irauten dute, beti izan baitira zaletasun haundiko mutil eta neska eta holaxe mendez mendez irauten dute dantzak. Badugu urte andana bat ari dela «Baztan Dantzari Taldea» lanean egin-ahal guziekin, gure dantzen artean mutil-dantza, soka-dantza, «Gaitte», zortzikoa, sagar-dantza, irri-dantza.

Gañera orai ikasten ari dira bertze lurraldetako dantzak ere, Erriberakoak, Gipuzkoakoak eta bertze fandango eta mota aunitzetako dantzak. Baztango Txistularien Kondaira agertu dugu, denen izenak aipatuz eta gure lurraldean izan ditugun zenbait gertakizun.

Mariano Izeta

Berri ona

Maria Errudun

«Ez izan beldurrik Maria etxean artzeko» (Mt. 1,18-24)

EBANJELIOA irakurtzen dugun bakoitzean, noski, izen batzuk agertzen zaizkigu. Zuzenean aipatzen ez badira ere, or daude pertsona oiek.

Gaur onoko aukeragatzen dira: Maria (Jesus'en ama), Jose (Maria'rekin ezkontzeko itzemaia), Jaungoikoaren aingerua, Dabid, Jesus -Emmanuel- (jaioko dena). Kanpotik begiratuta, ala dirudi, Maria da. pekataria, lizunkeria erori den emakumea; Jose, aldiz, gizon zintzoa (au da, lege zalea eta betetzen zuena), emakume ura utzi egin nai zuen. Baiña... emakume ura (Maria) babestu nai du. Edozein emakume ez dela... oartu da.

Maria'k sabelean zeramakien aur ura izango zenaren berri jakin edo, beintzat, sumatu izan balu... Maria babestuko ote zuen Jose gizajoak? Jose'ren bizitza erabat aldatuta gelditzen da ametsetan Jaungoikoaren aingerua azaldu eta Maria bere atxean artzeko erran zion une artatik.

Eta pertsona baten bizitza ankaz gora jartzen denean, beldura sentitzen da. Ikara eta izua. Zer egin? Aingeru berak erraten dio Jose'ri: «Ez izan beldurrik». Sinisteko moduko itzak ote dira? Jose'ek ez du zalantzarik: sinisten ditu.

Zalantzarik gabe Jainkoa sartzen da Jose'ren barnean, biotzean, bizitzan. Eta ori misterio aundia da! Jainkoak geroago gertatuko zena eman nai zuen aditzera; au da, Jainkoa gure ezur eta aragi egingo denaren ezaugarria bertzerik ez da.

Eta zuk ez al dezu izan Jainkoa zure biotzean sartuko denaren beldurrik? Nik baietz uste; eta orregatik, beldur orrek eraginda, Jaungoikoari izen ezberdiñak eman dizkiogu: dirua, atseginkeria, solidaritza (!), eliza... eta izen eder edo apain oien babesean Jaungoikoarenganako ikara aundia gordetzen dugu.

Baiña ez aaztu berri ederra eta bakarra au dela: «Emmanuel», Jainkoa gurekin, salbatzen gaituena, alegia, gurekin izango dugula. Ori jakiniñ eta ori sinisturik, zeren beldur izan bear duzu, dugu?

Eta pakea gure artean gauzatu nai badugu, au da bidea: joera okerrak aldamenara utzi eta pertsonak babestu, zaindu, defenditu. Pakea ez dugu eskuratuko elkarren aurka jartzen bagara; naiz eta guretarak ez izan, pertsona den aldetik, gure babesa eta gure laguntza merezi du. Ezin uka iñori jaiotzatik zor zaiona.

Eguberritan zorion, adiskide.

Artzalluz'tar Joxemari

Federiko Krurwig Sagredo jaun idazleari umore txarrik gabe

I ez ai noski nitzaz oroituko, bañan ni bai: nik gogoan euki aut beti, Bergara'n Euskaltzaindiak egindako batzar trakets artian alkar eza-gutu ezker; eta ire idazlanak irakurtzen dizkiat.

Izan ere, ez aiz ba i nolanaiko gizasemea: ETA'ren barruan itzal aundikoa izana, «el batua»ren sortzaileetako bat, --naiz orain «el batua»z asperturik egon --, ETA'ren Biblia izen zedin erorrek idatzitako «Vasconia»ren bidez «eta»tarren Maixu Nagusi ta Profeta, agnostikoa gañera, ots, zentzuen gaindiko deus sinisten ez duena... Badituk oiek naiko titulo, nik ire idazkiak irakurtzeko. Noiz-beink, bat izeten nauk irekin; baiñan geienetan «a dos» egoten gaituk: i ire aldetik eta ni neretik. Zea-ro nauk beintzet «a dos», azkena idatzi dukenarekin. Inolaz ere ezin bait dizkiat ik or esandakoak ontzat artu.

- Lanak ez duela, diok, katolikoentzat eta protestanteentzat balio berdiña: Katolikoentzat lana Jainkoaren zigorra dela eta, protestalarientzat, Jainkoaren grazia. Ori, Federiko, ez duk egia.

Katolikoontzat (eta mundu guztietarantz) lanak berekin dik nekea.

Ba, neke ori duk Jainkoak, pekatuaren ondorioz, lanari erantsitako zigorra.

Lana bera, katolikoontzat beintzet bai, Jainkoaren grazia duk. Pekaturik izen ez ba'zen ere, Jainkoak egindako izadia eder au bere osotasunera eramateko, gizakumeok egin bearko genukeen zerbait duk lana. Orrela, lanak, gizakumea, Jainkoaren lankide biurtzen dik!

Protestantei-buruz, gauza ez duk ain argia. Lutertarrentzat, lana ez eze gizakumeak egin dezakeen guztia duk pekatu, jatorrizko oben arrek, gizakumearen zertasuna zearo usteldu omen zuelako. Ik esana, agian Kalbindarrentzat balioko liket. Kalbiñ'ek, aberastasuna Jainkoak bere maiteei ematen dien grazia dela esaten bait dik.

Orren ondorioz, kalbinkeria zegok XIX mendeko kapitalismo zipotz zekenarren oiñarri. Esan zitekek, ba, kapitalismo ura kalbindasunaren semea dela. Erri europar aurreratuen artean, Alemani aipatzen duk eredu. Bapo! Bañan Alemani aberatsa, indartsua, langillea, egiaz aurrerata, Alemani Katolikoa duk: Babiera, eta bereiziki Renani'a! Beste Alemani ura, Ale-

mani zimela duk, zitala, «prusiarrak», gudarako bakarrik yaoa.

- Euskalerrria eta Katalauni, erri arretatutzat jotzen dituk. Euskalerrria, ijel! «la suete de tener durante algún tiempo reyes protestantes» izen omen zuelako. Kontuz, Federiko! Soilki Benaparro txikiak izen zian erregeiñ protestantea. Bat bakarra: III Jone. Erregiñ orrek ordea Benaparro'ra ez zian nekea ta gaitza besterik ekarri. Aren semea, III Enrike, Frantzi'ko erregetzara iritzi zitekeela ikusten zuelako, buruntza jantzi zuen bezin laister asi uan katoliko nola biurtu pentsatzen. Ta ¿Katalauni? Zergatik ote duk Katalauni erri aurreratu? ¿Karlomagno'z gero errege frankiarrena izen zelako? Bañan ¿sortu al dek munduan Karlomagno ta bere ondorengo errege aiek beño errege katolikoagorik?

- WILSON Ameriketako Lendakari protestantearen 14 puntuak aipatu dituk. 14 puntu oiek, adiskide, XIV BENEDIKTO Aitasantua-ren 7 puntuak dituk, urte bete leenago Aitasantuak oiukatuak: baiñan 7 auker 14 aiek beño milla aldiz, zintzoagoak, osoagoak, bikañagoak.

Latiegi'tar Bixente